

4. IKUS-ENTZUNEZKOEN EKOIZPEN-ETXEAK

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Ikus-entzunezko ekoizpena telebista eta zinemarako.

MERKATU-DATUAK

Zinema ekoizteko etxeek Espainian 2001. urtean izandako negozio-kopurua 138 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino %23,2 gehiago, eta hori txartel-salmentaren martxa onari eta telebistek egindako inbertsioei esker. 2001ean zinema ekoizteko etheen sarreraren %58 emanaldietako eskubideak telebistei saltzeak eragin zuen, %33 txartel-salmentak eta %9 banaketa bideografikoak. Telebistarako ekoizpen independentea asko hedatu da laurogeita hamarreko hamarkadan, bertako serieen arrakastan oinarrituta, neurri handi batean. Telebistako programen ekoizpen-etxeek 300 milioi euro inguruko negozioa egin zuten 2001ean, 1999-2001 denboraldian urtean batez besteko bariazio-tasa %9 ingurukoa izan zelarik.

Euskal Herrian 2001ean 146 establezimendu zeuden film-ekoizpenera emanak (CNAE-93; 92111), zinematografia eta bideo-ekoizpenaren laguntza-jardueratarako 44 establezimendu (CNAE-93; 92112) eta telebistako ekoizpen eta banaketarako 32 establezimendu (CNAE-93; 32). Aipagarriak dira estatuko bi ekoizpen-etxe handi, Bizkaian kokatuak: Baintet Zinema eta Pausoka.

Eusko Jaurlaritzak aurreikusten duenez, ikus-entzunezkoen euskal industriak 280.000 milioi pezeta fakturatuko ditu 2003. urtean, 1999an baino %60 gehiago, non salmentak 176.000 milioikoak izan baitziren. Eusko Jaurlaritzaren arabera ikus-entzunezkoen arloa, kulturari atxikia egon izan dena, potentzialtasun handiko jarduera ekonomikoa da, lanpostu-kopuru handia sortzeko gaitasuna baitu; ikus-entzunezkoen ekoizpena goranzko joera duen ekonomi arlotzat hartu behar da, sorkuntzaren eta industriaren irizpideak batzeko gaitasuna duena, hori aurrebaldintza izanik gero eta lehiakorragoa den merkatu globalagoaren erronka berriei aurre egiteko. Halaber, ikus-entzunezkoen industriek inbertsio garrantzitsuak eragin ditzakete berrikuntzan eta gizarte-kohesioa bultzatu, Administrazioaren eta ekimen pribatuaren artean harreman estua mantentzen bada betiere.

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

" Zerbitzuak

Filmak, laburmetraiak eta hainbat formatutako iragarkiak ekoitzi eta editatzea. Muntatze, bikoizketa eta dekorazio eszenikorako zerbitzuak ere eskain daitezke.

" Sustapena

Formularik onena zuzenean harremanetan jartzea tokian tokiko telebistekin eta ikus-entzunezkoen tamaina handiagoko beste ekoizpen-etxe batzuekin, azpikontratatzeari interesatzen diren zerbitzuak eskaintzeko. Erabilgarria da egindako zerbitzuen eta lanen katalogoa izatea, enpresa aurkezteko CD-ROM bat eta norberaren web orria.

Plan Operatiboa

" Lokala

Gune bereziak behar ditu harrera-gela, bilera-gela eta edizio eta muntaketarako estudioa jartzeko. Ona izan daiteke plato txiki bat edukitzea ere.

" Kokapena

Kokaleku ohikoenak industrialdeak dira, telebista-emisore eta ikus-entzunezkoen beste ekoizpen-etxe batzuetatik hurbil.

" Ekipamendua

Ordenagailuak, irudiak editatzeko softwarea, kamerak, edizio-mahaiak eta ekoizpen- eta ekoizpen-osteko material gehigarria.

Giza baliabideen plana

Ez da behar titulazio berezirik ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxe bat abian jartzeko. Hala ere, funtsezkoa da esperientzia eta prestakuntza espezifikoa izatea, edo baldintza horiek beteko dituzten langileak kontratatzea. Badira lanbide-heziketan espezialitate honetara bideratutako titulazioak, bai goi-mailakoak (goi-teknikaria irudian, ikus-entzunezkoen eta ikuskizunen errealizazioa, arte plastikoak eta diseinua, ikus-entzunezko komunikazioa) eta bai erdi-mailakoak (irudi-laborategiko teknikaria, irudi- eta soinu-operadorea).

Inbertsio-plana

Batez beste 24.000 eta 30.000 eurotik aurrera. Garrantzitsua da sarrera eta gastu-aurreikuspena egitea jarduera hasi aurretik.

Dena den, negozioa abian jarri aurretik inbertsio-plana egitea eta finantzaketa-iturriak zehaztea komeni da.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta beka

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

" Sormena eta profesionaltasuna

Negoioaren lehengaia da. Profesional-talde ona eta lehen mailako sortzaileak izatea oinarrizko baldintza da arlo honetan enpresa-abentura berri batek arrakasta izateko.

" Teknologia

Arlo honetako enpresen lehiakortasunerako erabakigarria da; beraz, beti adi egon behar da sortzen diren aurrerapenak erabiltzeko. Alde horretatik, Internetek merkatuan txoko bat eskaintzen du bideo-formatuan web-erako edukiak sortzeko.

" Herri eta autonomia erkidegoetako telebistak

Azken urteotan herri-telebisten programazioaren kalitatea hobetzeak, entretenimendu-saioen eskaintza gehitzeak eta batez besteko ikusle-kopurua gehitzeak bultzada handia eman dio ikus-entzunezkoen arloari. Hauek izango dira gaitasun handieneko bezeroak.

HELBIDE INTERESGARRIAK

**ASOCIACION DE PRODUCTORAS AUDIOVISUALES INDEPENDIENTES
DEL PAIS VACO (IBAIA) - IKUS-ENTZUNEZKOEN EUSKAL EKOIZLE
BURUJABEEN ELKARTEA**

<http://www.ibaia.org>

**AITE. Agrupación de industrias técnicas del cine, el vídeo y el multimedia -
Zinema, bideo eta multimediazko industria teknikoen elkarte**

<http://www.aite.es/aite.html>

**ANEP. Asociación nacional de empresas de producción audiovisual - Ikus-
entzunezko ekoizpen-enpresen elkarte nazionala.**

<http://www.fapae.es/> (Ikus 02 Asociaciones)

**FAPAE. Federación de asociaciones de productores audiovisuales españoles -
Espainiako ikus-entzunezkoen ekoizleen elkarteen Federazioa**

<http://www.fapae.es/>

SONIMAG. IRUDIAREN ETA SOINUAREN NAZIOARTEKO ERAKUSKETA

<http://www.sonimag.com>

IKUS-ENTZUNEZKO ENPRESEN GIDALIBURUA

<http://www.audiovisuales.com/>

**EMPRESAS DEL SECTOR TECNICO AUDIOVISUAL: Agrupación de
Industrias Técnicas Españolas del Cine, Vídeo y Multimedia - IKUS-
ENTZUNEZKOEN SEKTORE TEKNIKOKO ENPRESAK: Zine, Bideo eta
Multimediako Industria Teknikoen Espainiako Elkarte**

URL: <http://www.aite.es/aite/html>

**SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES - FUNDACION AUTOR -
AUTORE ETA EDITOREEN ELKARTE NAGUSIA**

<http://www.artenetsgae.com/anuario/anuario2002/home.html>